



**25 urte gure
erroak airean
astinduz**

euskaltel 
FUNDAZIOA 25

1

Hitzaurrea

25 urte benetan axola duena konektatzen

Historia guztiak ez dira promes handi batekin hasten. Batzuk galdera batekin sortzen dira:

Zer egin dezakegu,
hemen eta orain, zerbait
garrantzitsua eraikitzeko?

Horrela sortu zen Euskal Fundazioaren historia. Ez egoteko, baizik eta egiteko. Ez kanpotik begiratzeko, baizik eta gizarteari aurrera eginarazten dion horren parte izateko: ezagutza, berdintasuna, kultura, hizkuntza, gehien behar dutenen zainketa. Eta garen horretatik abiatuta egin dugu: teknologiatik, berrikuntzatik, saretik abiatuta. Eta, batez ere, pertsonetatik abiatuta.

Mundua nola aldatzen zen ikusi dugu. Eta ez gara bazterrean geratu. Hor egon gara: egunero bizitzaren digitalizazioan, hezkuntzaren, zientziaren, kulturaren edo komunikatzeko moduaren bilakaeran, etab. Errealitateak lotu ditugu, berrikuntza sustatu, tresnak hurbildu, eta aukerak sortu. Baita emozioak ere. Ekarpenak egin ditugu gauden tokitik, etorkizuna bizkorra ez ezik justua ere izan dadin.

Ez dugu nahi izan teknologia pribilegioa izatea, baizik eta izatea tresna bat irispidea, autonomia, aukera-berdintasuna eta partaidetza sustatzen dituen. Neskak eta emakumeak ohartzea haien talentuak baduela toki bat

zientzian, eta toki guztietan. Adinekoek, desgaitasuna dutenek eta zailtasunak dituzten familiek jakitea ez daudela bakarrik.

Gure oinen azpian oso bizirik dirauen hizkuntza baten alde egin dugu, erakusteko ez baizik eta bizitzeko den kultura baten alde. Eta gailuak ez ezik istorioak, emozioak eta pertsonak lotzen dituen sare baten alde.

Hori da gure historia, eta, beraz, zurea ere bai. Lankidetzaz, sarez eta aliantzaz betetako historia. Haiei esker, lorrezina zirudiena lortu dugu. Hori guztia ez baitugu bakarrik egin. Urrats guztiak partekatu ditugu. Lorpen guztiak taldekoak izan dira.

Gure 25. urteurrenaren ospakizuna gonbidapen bat da. Elkarrekin egin dugun guztia gogora ekartzeko, ospatzeko eta geure buruari aitortzeko gonbidapena. Baina, batez ere, aurrera jarraitzeko dei bat da.

Izan ere, gehien balio duena ez da lortutakoa, baizik eta eraikitzeko dagoena. Bai baitakigu garrantzitsua dela urrun iristea, baina are garrantzitsuagoa dela elkarrekin iristea.

Eusten gaituzten sustraietatik, bultzatzen gaituzten hegoekin.

Luz Usamentiaga Euskaltel Fundazioko 2025eko presidentea

“ Enpresa-erakundeek arima dute, guzti-guztiek baitute atzean pertsona-talde bat, erakundea moldatzen duena; eta horrek egiten ditu enpresak desberdin bata bestetik. Gizabanakoon behar bat da: besteetatik bereiztea, pertsona berezi gisa gure tokia izateko.

Hain zuzen ere, besteetatik bereizteko premia horrek bultzatu zuen, duela 25 urte, aparteko giza talde bat proiektu bat definitzera, telekomunikazioen historia orduan eta betiko baldintzatuko zuena. Ez dirudi 25 urteko historia luzea denik, baina merkatu bat liberalizatzeke erabakiaren ondorioz sortutako sektore baten historia osoa da, eta emaitza, berriz, inoizko berrikuntza, garapen teknologiko eta prestazio-unibertsalizazio handieneko urteak izan dira.

Orduan sortzen ari zen eta ibilbide zirraragarria egin duen industria baten aitzindaria eta bultzatzailea izan zen Euskaltel Taldea. Proiektu berritzaile hura arrakastatsua izan zedin konpromisoa hartu zuen giza talde hark arau-esparru bat konfiguratu ere egin zuen, eta esparru hari esker egin dugu aurrera etengabe berrikuntzaren eta eraldaketaren bidean. Gure sustraieetatik abiatuta, mundua ulertzeko dugun modutik ziurtatu nahi zuen Euskadik konektagarritasunik handiena izango zuela, eten digital fisikoak ezabatuko zituela, eta konektagarritasun hark, sare haiek, gure nerbio-sistema konfiguratuko zutela, gure hegoak, ekonomia berri bat —eraldaketa ekonomikoaren olatu berri bat— bultzatzeko, Euskadik inork baino hobeto aprobetxatuko zuena, bere enpresa- eta ekintzaile-espirituari esker.

Baina orduan, orain bezala, askoz gehiago zegoen: konpromiso sendo bat gizarteak ematen digunaren zati bat hari itzultzeko. Eta konpromiso hartatik abiatuta jaio zen Euskaltel Fundazioa, asmo sendo batekin: ziurtatzea inor ez zela geratuko eraldaketa digitalak eskaintzen dituen aukerak izan gabe. Euskaltel Fundazioak gaitasun berrien prestakuntza bultzatzen du, gazteei teknologia berriak erabiltzen laguntzen die, gure hizkuntza, harrotasunez desberdintzen gaituena, adimen artifizialaren olatutik kanpo gera ez dadin lan egiten du, eta gure kirola laguntzen eta sustatzen du, Marea Laranja noranahi hedatuz eta imajinaezina den neurriraino hunkituz.

Fundazioko presidente naizen aldetik, ohore handia da niretzat akatsik gabeko ibilbidea duen erakunde bat ordezkatzeko. Sentitzen dut lanaren, pasioaren, adimenaren eta ikuspegiaren bidez eraikitako ondare bat jasotzen dudala, gorde beharrekoa, hurrengo belaunaldiek bere horretan euts diezaieten gure aurretik hain eskuzabal aritu diren guztien asmoari eta asmamenari. Erantzukizun handia da, baina lantalderik onena daukat ondoan, eta onena emateko dugun gogoia eta grina bidelagun izango ditugu bide osoan.

Zorionak, Euskaltel Fundazioa!





2

Telekomunikazioen sektoreak eta haren funtsezko eragileek azken 25 urteetan izandako bilakaera

Azken 25 urteetan, komunikazioek gure bizitza digitala ehundu dute. Hasiera batean, zerbitzu eskusibo eta garesti bat zen, baina, orain, aukeren sare kartsu gisa integratu da bizitzan, eta pertsonak, enpresak eta lurraldeak lotzen ditu, duela hamarkada batzuk imajinatu ere egingo ez genituzkeen moduetan.

Bidaia eraldatzailea izan da, eta lau fase nagusi izan ditu: liberalizazioak monopolioa hautsi zuen, eta eragile berriei zabaldu zien merkatua; azpiegituren hedapen masiboak etxe eta enpresetara eraman zuen konektibitatea; fusio eta aliantza estrategikoez sektorea finkatu zuten, eta beste maila batera eraman zuen eraldaketa; eta, azkenik, 5Garen aro honetan, heldze digitalak adimen artifizialerako eta nonahiko konektibitaterako ateak zabaldu dizkigu.


Prozesu horretan, Europak norabidea ezarri du, arau-esparru sendo baten bitartez, zeinak lehia, azpiegiturretako inbertsioa eta kontsumitzaileen babesa dinamizatu baititu. Bestalde, Espainiak estrategia propioak garatu ditu ildo horiek bere merkatura egokitzeko; aldiz, Euskadik apustu sendoa egin du berrikuntzaren eta epe luzeko garapen teknologikoaren alde.

Historia horren erdian, telekomunikazio-operadore bat baino askoz gehiago izan da Euskaltel: aurrerabidearen sinboloa, tradizioaren eta etorkizunaren arteko zubia, eta digitalizazioa

euskal komunitateko txoko guztietara eraman duen aldaketa-eragilea.

Kartografia horretatik kanpo ez dira ulertzen gure historia eta 25 urte hauetan utzi dugun azarna. Eraldaketa hori markatu duten merkatuaren eta Euskaltelen arauak euskal gizartearekin batera egin dugun bideko mugarrak dira. Izan ere, sektorean egindako aurrerapen guztiek gure komunikatzeko modua aldatu dute, eta gizarte konektatuagoa, berritzaileagoa eta aukera gehiagokoa sustatu dute.

Euskadiko telekomunikazioen historian ikuspegi, berrikuntza eta ausardia dira nagusi, baita epe luzeko negozio-eredu industrial eta jasangarriaren aldeko apustua ere. Eta gure historia da.



■ Arau-esparruko mugarrak ■ Merkatuko mugarrak ■ Euskaltelen mugarrak

3

Euskaltel Fundazioak azken 25 urteetan izandako eragina

Duela 25 urte, enpresa bat baino gehiago sortu zen: ikuspegi bat. Euskaltel ez zen etorri etxeak, enpresak eta pertsonak lotzeko soilik: Lurraldearekin eta hango kulturarekin, hizkuntzarekin eta jendearekin konektatzeko iritsi zen. Historia honetan, bidaiak bizitzak eraldatu ditu, talentua sustatu du, eta kide-tza-harrotasuna sendotu du. Berrikuntzan, gizarte-konpromisoan eta Euskadirekiko grina etenezinean oinarrituta ehundu da historia hau.

Euskaltel Fundazioaren hastapenak

1997 | Gure izateko arrazoia

1997an sortu zenetik, Euskaltel ez zen izan telekomunikazio-enpresa bat soilik: euskal gizartetikiko konpromiso sendoa zuen eraldaketamotor bat izan zen. Fundazioa sortu aurretik ere, konpromiso hori garbi erakutsi zuen kultura-, gizarte- eta kirol-ekimenei eman zien babesean; horren erakusgarri da Guggenheim Museoaren Patronatuan sartu izana.

Inplikazio hori Donostiako Musika Hamabostaldira, Bilboko operara eta jai herrikoietara ere zabandu zen, beti ere euskara eta tokiko tradizioak sustatzeko asmoz.

2000-2001 | Fundazioaren sorrera: sustraiak eta hegoak

2000. urtean sortu zen Euskaltel Fundazioa, arima soziala eta pertsonetikiko eta Euskadiren

etorkizunarekiko konpromisoa dituen proiektu teknologiko baten adierazpen natural gisa. Hau du lehentasun nagusia: Informazioaren Gizartea herritarrengana, enpresetara eta erakundeetara hurbiltzea. EUDELekin lankidetzan, zenbait topaketa antolatu ziren lurralde osoan, aro digitaleko aldaketan eta aukeren berri emateko.

2001ean, beste ekimen batzuekin sendotu zuen lan hori; hala, Euskadi Informazio Gizartean Planean (2002-2005) parte hartu zuen, zeinaren helburuak argi eta garbi islatzen baitu Fundazioaren jomuga:

euskal gizartea aro digitalera egokitzea, bizi-kalitatea hobetzeko, balioa sortzeko eta gizarte-oreka lortzeko

Lanari ekin genion, beraz, eta planean zehaztutako 10 jarduera-ildoetatik hirutan jarri genuen indarra: **Trebakuntza elektronikoa, enpresa digitala eta internet guztiontzat.**

Hasiera-hasieratik, Euskaltelen nortasunak aurrerapena eta tradizioa uztartu ditu. Euskara sustatzen du bere DNAREN funtsezko osagai

delako; horren erakusgarri dira, besteak beste, hiztegi teknologikoa eta Ikastolen jaiei ematen dien babesa.

Gainera, 2001ean, kulturarekiko konpromisoa ere sendotu zen: Euskaltel Kursaleko patronatuko kide bihurtu zen, eta artea eta musika zabaltzeko ahalegina indartu zuen horrela.

Urte hartan bertan, fenomeno geldiezin bat jaio zen: Marea Laranja. Euskaltel-Euskadik Fran-

tziako Tourrean egindako debutarekin, sugar kolektibo bat piztu zen. Zaleek laranja z tindatzen zituzten errepideak, eta Euskadiren ikur bihurtu zuten txirindulari-taldea. Lorpen bakoitza garai-pen bat baino gehiago izan zen: denok partekatutako Historia.

Eta emozioa errepideetan barrena zihoan bitartean, Euskal 8 sortu zen, ekitaldi aitzindari bat, EuskalAmigarekin batera, informatikaren, sareko bideojokoen eta sorkuntza digitalaren zale pila

bildu zituen: guztira, 1.600 lagun baino gehiago. Ez zen izan jai teknologiko hutsa, mugimendu baten sorrera baizik, Euskaltel Fundazioak ezagutza, sormena eta komunitate digitala bultzatzearen aldeko apustua egin baitzuen.

Egun haiek eraldaketa kultural eta teknologiko baten hasiera markatu zuten, eta, denborak aurrera egin ahala, Estatuko party garrantzitsuena eta talentu partekatuaren sinbolo bihurtu zen.

Sorrerako ilusioz eta energiaz betetako lehenengo urte haien ondoren, abiarazitako ekimenetako batzuk Euskaltel Fundazioaren funtsezko euskarri gisa sendotu dira, eta euskal gizartearen aldaketetara egokitu dira. Era berean, ekimen berriak sortu dira, eta konpromisoz eta sormenez erantzun zaie 25 urteotako erronkei. Fundazioaren funtsa beti izan da bera: pertsonengandik hurbil egotea, komunitateari balio erantsia ematea, eta Euskadiri sozialki eta kulturalki garatzen laguntzea.

Nolakoa izan da eragin hori? Zein arlotan gauzatu da konpromiso hori urteetan zehar? Hori hobeto ulertzeko, Euskaltel Fundazioaren azterna duten funtsezko arloen mapa bat egin genuen.





Trebakuntza eta enplegua

25 urtez, Euskaltel Fundazioak funtsezko tresna bihurtu du trebakuntza, Euskadin inklusio digitala, kalitate oneko enplegua eta lehiakortasuna sustatzeko. Jakinik etengabe aldatzen ari den ingurune digital batean bizi garela, pertsonak etorkizun horretarako prestatzearen alde egin du Fundazioak, eta merkatuaren beharretara eta profil sozial desberdinetara egokitutako ikasketa-aukerak eskaintzen ditu horretarako.

Inor atzean ez uztea

Hasiera-hasieratik, Euskaltel Fundazioak ulertu zuen aurrerapen teknologiko bakoitzak pertsona guztien zerbitzura egon behar zuela. Horregatik, irmoa eta etengabea izan du inklusio digitalarekiko konpromisoa, bereziki bazterketa-arriskuan dauden kolektiboekiko. Urte hauetan, Euskaltel Fundazioak bizitzarako aliatu bihurtu du teknologia, eta autonomia, pentsamendu kritikoa eta irispide bidezkoa sustatu ditu. Izan ere, pertsona guztientzat ez bada, ez da aurrerapena.



Berrikuntza eta ekintzailtza sustatzea

Berrikuntza munduan egoteko modu bat izan da beti Euskaltelentzat; ez helmuga bat, mapa bat baizik. Erabaki eta proiektu bakoitza zeharkatzen duen jarrera kolektiboa. Berritzea talentuan konfiantza izatea da, ezustekoei lekua egitea, pertsonak, teknologia eta aukerak konektatuko dituzten soluzioak imajinatzea. Euskadi Informazio Gizartean Planarekin bat eginik, eraldaketa digitala eta ekintzailtza bultzatzeko ekimenak sustatu ditu.

STEM bokazioak talentua sustatzeko

Gure ustez, bokazio zientifikoak eta teknologikoak ez dira zoriz jaiotzen: norbaitek inspiratzen zaituenean pizten dira, norbaitek sinetsi eta erakusten dizunean mundu hori zurea ere izan daitekeela. Horregatik, Euskaltel Fundazioak lanean dihardu STEM ezagutza haur eta gazteei helarazteko, jakin-minaren txinparta pizteko haiengan, betiere begirada bidezko eta askotarikoa gidari duela.





Ekitaldi teknologikoak

Euskaltel Fundazioak sustatutako party teknologikoak ekitaldi hutsak baino askoz gehiago izan dira: horretaz gain, berrikuntza esperientzia kolektibo bihurtzen duten guneak dira. 2000. urtean egindako lehen Euskal Encounterretik, teknologiaren, bideojokoen, sormenaren eta ikaskuntzaren milaka zale bildu dituzte ekitaldiok.

Marea Laranja

Euskaltel-Euskadi taldearen historia ez da kirol-arlokoa soilik: nortasun, ahalegin eta emozio partekatuaren kontakizun bat da. 1997an sortu zenetik, talde-lanaren, sakrifizioaren eta pasioaren balioa erakutsi du, eta horiek dira, hain zuzen ere, Euskaltel Fundazioa definitzen duten balioak. Eta, txirrindulari-taldearekin batera, zerbait handiagoa jaio zen: Marea Laranja, etapa bakoitza ekitaldi kolektibo bihurtu zuen zale-taldea.



Emakume kirolaririk gabe ez

Denbora luzez, ikusezin bihurtuta lehiatu dira emakumeak, babesik eta ikuslerik gabe. Ez talenturik ez zutelako, ikusten ez zituztelako baizik. Euskaltel Fundazioan uste dugu kirolak hesiak eraits ditzakeela eta berdintasuna eraiki, pistatik, menditik edo itsasotik hasita. Horregatik, Euskaltel Fundazioak emakumeen lidergoa sustatzen duten proiektuak bultzatu ditu tradizioz gizezkoenak izan diren dizipline-tan, eta prestakuntza, laguntza teknikoa eta ikusgarritasuna eskaini die belaunaldi berrientzat erreferente diren kirolariei.

Kultura

Kultura memoria da, emozioa, eta eraldatzen laguntzen duen arima-teknologia. Hasiera-hasieratik, barrua ukitzen dion guztiarekin konprometitu da Fundazioa: euskara, arteak, musika, literatura, jaiak eta batzen gaituzten sinboloak. Euskara izan da beti konpromiso horren bihotza. Ikasgeletan, teknologian eta eguneroko bizitzan bultzatu du Fundazioak. Izan ere, hitz egiten direnean bizi dira hizkuntzak... eta, batez ere, zaintzen direnean.



4

Eragin sozioekonomikoa 25 urte balio partekatua sortzen

Eragin sozioekonomikoa erakundeek sortzen duten balioaren funtsezko alderdi bat da, nahiz askotan ez den islatzen ohiko kontabilitate-balantzeetan. Euskaltelen eta haren Fundazioaren kasuan, euskal gizartearekiko konpromiso etengabearen islatzen da eragin hori; ez soilik jardura ekonomikoaren edo zerbitzu-eskaintzaren bidez, baizik eta, horretaz gainera, komunitatea osatzeko, bizitzak hobetzeko eta azterna positibo eta iraunkorra uzteko gaitasunaren bidez.

Eragin sozioekonomikoaz hitz egitea harremanez, konfiantzaz eta kohesioaz hitz egitea da. Eta kontuan hartzea erakunde baten benetako baliorako funtsezkoa dela orobat nola lotzen den erakunde hori bere ingurunearekin eta zenbateraino jotzen duten esanguratsutzat eta eraldatzaitzat pertsonak eta taldeek erakunde horren jarduna. Baina eragin hori ez da ukiezina bakarrik: kontabilitate-adierazleetan eta lurraldearen garapen ekonomikoari laguntzen dion inbertsio iraunkor batean ere islatzen da. Balio horrek arrasto ukigarria uzten du gizarteetan.

Hori dela eta, Euskaltelek eta haren Fundazioak inpaktu hori zorrotz eta gardenki neurtzearen alde egin dute, eta, horretarako, sortutako balio sozioekonomikoa kuantifikatzeko eta komunikatzeko aukera ematen duen metodologia bat aplikatu dute.

Ikuspegi metodologikoa: balioa zifren bidez adieraztea

Euskaltelek eta haren Fundazioak balio sozial integratuaren ikuspegia aplikatzen dute finantza-emaitzetatik harago duten eragina neurtzeko. Kontabilitate horren bidez, zifra ulergarrien bidez adierazten dituzte baita tradizioz ukiezinak izan diren alderdiak ere, hala nola gizarte-kohesioa, talde zaurgarriari emandako laguntza eta kulturaren sustapena.

Metodologia hori grafikoan erakusten diren lau osagai nagusiren inguruan egituratzen da.

Euskaltelek eta haren Fundazioak 1999 eta 2024 bitartean gizartearen izan duten inpaktu sozioekonomikoa neurtu dute, baita Euskaltel Fundazioak 2000 eta 2024 bitartean izandakoa ere, METODOLOGIAREN 4 OSAGAI FUNTSEZKOREN laguntzarekin egindako analisi baten bidez.



METODOLOGIA HONEK LAU OSAGAI NAGUSI DITU:



Iturriak:

Aztertutako ekitaldiei dagozkien EUSKALTElen egoera-erriak, Merkataritza Erregistrotik hartuak SABI Bureau Van Dijk-en bidez (Balantze Iberikoak Analizatzeko Sistema), 2024ko datuak izan ezik, horiek Euskaltelek zuzenean eman baititu.

Kalkulu batzuetarako, kontuan hartu da, halaber, EUSKALTElen 2016ko kontabilitate soziala.

Ordaindutako BEZaren eta sozietate zergaren Euskaltelen kalkuluak.


Euskaltel Fundazioak Eusko Jaurlaritzari aurkeztutako memoriak; 2024koa izan ezik, erakundeak berak emandako egunkari-liburutik hartu baitira urte horietako datuak. Ezin izan dira berreskuratu 2009a baino lehenagoko memoriak, eta, beraz, urte horietako datuak gainerako urteetako datuetan oinarrituz egindako hipotesietan eta aurrez baziren datu batzuetan bermatuz kalkulatu dira.

Emaitzak

Euskaltel

Euskaltelen benetako inpaktua ez da zifra ekonomikoetara mugatzen: pertsonen bizitza hobetzen duen eta gizarte-ehuna indartzen duen orotara hedatzen da. Bere jardueraren bidez, balioa sortzen du hainbat dimentsiotan —ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa—, eta, balio hori neurtuta eta ikusgai jarrita, Euskaltelek ongizate kolektiboari egiten dion benetako ekarpena uler daiteke.

Grafiko honetan, Euskaltelek gizarteari itzultzen dion guztizko balio hori dago jasota, hau da, hala balio ukigarria nola ukiezina.



Sortutako merkatu-balioaren banaketa

Grafiko honetan ikusten da nola banatzen duen Euskaltelek merkatuan sortzen duen balioa; era berean, erakundeak ekonomia bidezkoago eta jasangarriago batekin duen konpromisoa islatzen du.

15.142 milioi euroko balioa da, eta hainbat interes-talderen artean banatzen da: langileak, finantzatzaileak, administrazio publikoa, inbertitzaileak eta jasangarritasunera eta erakundearen ondarrera bideratutako ekintzak. Irudi horrek argi eta garbi erakusten du enpresa-jarduerak onura partekatutako ekar diezazkiokeela gizarte osoari honako hauen bidez: enplegu-sorrera, azpiegituretako inbertsioa eta eragin soziokulturala.

Urteko enplegu-sorreraren batezbestekoa

1999tik 2024ra bitartean, urtean batez beste 2.504 enplegu sortzen lagundu du Euskaltelek, zuzeneko, zeharkako eta eragindako enplegua barne. Horrek argi erakusten du inguruneke ehun ekonomiko eta sozialean duen eragina.



Inbertsioa azpiegiturretan

Sareetan eta teknologia berrietan egin dituen inbertsioei esker, Euskaltelek 4.896 milioi euroko inpaktua eragin du.

25 urte hauetan, Euskaltelek inbertsio iraunkorra egin du azpiegiturretan, eta horrek lurraldeko konektagarritasuna eraldatu du. Zuntz optikozko sare propioa hedatzearen aldeko apustuari esker, zerbitzuaren abiadura eta kalitatea hobetu dira, eten digitala murriztu da eta inklusio teknologikoa bultzatu da, bereziki landa-eremuetan. Etorkizuneko ikuspegi horri esker, EAEn biztanleko gehien inbertitu duen enpresa bihurtu da Euskaltel, eta lurralde-garapenarekin duen konpromisoa sendotu du. Gainera, digitalizazioa bultzatzeak eta 5Garen eta antzeko teknologien erabilera sustatzeak indartu egin du euskal gizartearen modernizatzeko eragile giltzarri gisa duen zeregina.




Inpaktu soziokulturala

Bestalde, Euskaltelek lotura estua sortzen du Euskadiko herritarrekin. 1999 eta 2024 artean, inpaktu sozial positiboko 1.633 milioi euroko ekarpena egin du kulturarekin, tokiko identitatearekin eta inklusio digitalarekin duen konpromisoaren bitartez.



Euskaltel Fundazioa

Euskaltel Fundazioaren eragina proiektu jakin batzuk laguntzetik harago doa: gizarteari zuzendutako benetako balioa sortzen du. Kultura-ekin, hezkuntzarekin, inklusio digitalarekin eta gizarte-kohesioarekin duen konpromisoaren bidez, Fundazioak inpaktu positiboa sortzen du, Euskaltelen lana osatzen eta handitzen duena.



Sortutako merkatu-balioaren banaketa

Grafiko honetan ikusten da nola banatzen duen Euskaltel Fundazioak merkatuan sortzen duen balioa; era berean, erakundeak gizarte kohesionatuago, inklusiboago eta jasangarriago batekin duen konpromisoa islatzen du.

19,6 milioi euroko balioa da, eta hainbat interes-talderen artean banatzen da, grafikoan ikusten den bezala: langileak, administrazio publikoa eta inpaktua duten beste ekimen batzuk.



Merkatuaz haragoko balioa

Merkatutik harago, Euskaltel Fundazioak balioa sortzen du preziorik ez duten baina inpaktu sozial sakona duten jarduerak bultzatuz. Euskara, kultura, kirola, hezkuntza digitala eta berrikuntza sustatuz, euskal gizartearen ongizatea eta kohesioa lortzen laguntzen du. Balio hori konpromisotik eta hurbiltasunetik sortzen da, ez zuzeneko diru-sarreretatik, eta merkatu-baliotik harago doa. 2000 eta 2024 urteen artean, Fundazioak merkatuaz haragoko 97,6 milioi euroko balioa sortu du.

Kontuan hartzen dira bai zuzeneko inpaktua bai indusitutako inpaktua. Zuzeneko inpaktua Fundazioaren jarduerak berehala sortzen duten balioari dagokio; adibidez, talde zaugarriari zuzendutako prestakuntza digitaleko tailerrak. Indusitutako inpaktua, berriz, Euskaltel Fundazioak beste erakunde batzuk finantzatzeari dagokio, azken horiek izanik inpaktua eragiten dutenak.

Inpaktu soziala

Fundazioak balio emozional handia sortzen du harekin elkarlanean aritzen diren pertsona eta taldeetan. Ekimenek kide izatearen harrotasuna sustatzen dute, tokiko identitatea indartzen dute eta hurbiltasunezko eta konfiantzazko topaguneak sortzen dituzte. Balio ukiezin horrek euskal gizartearekin dagoen lotura elikatzen du, eta Fundazioak komunitatearekiko agente konprometitu eta hurbileko gisa duen zeregina indartzen du.

2000 eta 2024 urteen artean, Fundazioak 21 milioi euroko inpaktu soziala eragin du.



Ondorioa

Azken 25 urteotan, Euskaltelek eta haren Fundazioak eragin sakon eta iraunkorra izan dute euskal gizartean, eta arrasto nabarmena utzi dute hainbat alderditan. Beren jarduerak asko lagundu dute garapen ekonomikoan, inklusio digitalean, enpleguaren sorreran, gizarte-kohesioan eta identitate kulturalaren sendotzen. Ikuspegi konprometituari eta inpaktu sozioekonomikoaren neurketa zorrotzari esker, haien balioa enpresa-esparrutik harago doala berresten da: Euskaltel eta haren Fundazioa eraldaketa positiboaren eragile izan dira eta izaten jarraitzen dute, eta funtsezko eragileak dira etorkizuna duen gizarte konektatuago eta bidezkoagoa eraikitzeko.

5

Deitzen gaituzten zerumugak

Zenbaitetan, badirudi mundua izenda dezakegun baino bizkorrago mugitzen dela. Atzo egonkorra zena gaur eraldatu egiten da, eta segurutzat jotzen genuena aldatu. Une horietako batean gaude orain. Dena birkonfiguratzeko da: ezegonkortasun globala, sortzen ari diren gatazkak, baliabideak lortzeko lasterketa, trantsizio energetiko bizkorra...

Erronka bakoitzean, aurrera egiteko, hobetzeko, batzeko aukera ikusten dugu. Gauzak beste era batera egiteko, sare sendagoak ehuntzeko eta teknologia guztia ongiaren zerbitzura egoteko aukerak. Izan ere, etorkizunari itxaropenez begiratzea ere bada konpromiso-modu bat, eta gure izateko modua da.

Hemen jarraitzen dugu, beti egon garen moduan: pertsonen ondoan, bidea partekatuz, gizartearen beharrei entzunez, eta etorkizun justuagoa, konektatuagoa eta gizatiaragoa lortzearekin amets eginez.

Garai berri honetan, Euskaltel Fundazioak bost ildo handitan jarriko du arreta; ildo horiek ekosistema instituzional, enpresarial eta sozial sendo baten ikuspegiarekin lotzen dira.



Euskaltel Digital Center

Konpromiso hori bere proiekturik enblematikoe-
nean gauzatzen da: Euskaltel Digital Center,
etorkizunak forma hartzen duen gune bat. Ez
da izango espazio fisiko bat soilik, baizik eta
asmo nagusiaren bihotz bizia: leku ireki bat,
integratzailea eta herritar guztien zerbitzura
egongo dena. Egoitza berean, ikaskuntza, berri-
kuntza eta ahalduntzea uztartuko ditu, adin,
profil eta une askotarikoetara egokitutako pre-
stakuntza-eskaintza bati esker. Asmo-adierazpen
bat izango da eraikin huts bat bainoago: auke-
ren, ekitatearen eta berrikuntzaren itsasargi bat.
Leku bat inor utziko ez duena mundu digital ber-
ritik kanpo izan ere, etorkizuna, egokitu ez ezik,
eraiki ere egiten da.

Nerea Enbeita Euskaltel Fundazioko 2025eko zuzendaria

“Bizitzak erakutsi dit proiektu handiak, ge-
hien betetzen eta ilusionatzen gaituzten proiektuak,
ahalegin kolektibotik sortzen direla, eta
arrakasta oso gutxitan izaten dela banakako aha-
leginaren emaitza. Gure lorpenak jende askoren
konpromisoaren, ikuspegiaren eta talde-lanaren
isla dira.

Euskaltel Fundazioa, zeinak 25 urte baitaramatza
berrikuntza eta garapen teknologikoa sustatzen,
horren adibide garbia da: jende ugari biltzen du,
eta, guztiak batera, indartsuago izatera iritsi ziren.
Orain, merezi du egindako bidetik jarraitzea.

Urteurren hau aukera paregabea da, ez bakarrik
elkarrekin lortutakoa ospatzeko, baita etorkizunari
buruz hausnartzeko eta euskal gizartearekin
dugun konpromisoa konbikzio osoz berritzeko ere.



Euskaltel Fundazioaren ustez, teknologiak ahalmena du bizitzak eraldatzeko, bideak urratzeko eta gizarte justuagoa, berdinzaleagoa, jasangarriagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko.


Lurraldea, kultura, izaera: gure konpromisoa sendoa da, eta Euskadik abangoardia teknologikoan jarraitu dezan lanean segituko dugu; hala, biziitza erraztuko diegu pertsonari eta enpresei, eta ziurtatuko dugu komunitateak etekina aterako diela bilakaera digitalak, teknologiak eta, azken batean, etorkizunak dakartzan aukerei.



Honekin elkarlanean osatu da txostena:



Toki-izaera. Gizarte digitalaren sustapena



Versión en castellano